

noaua



NAHI BESTE EKITALDI, FESTA GOSEA ASETZEKO

Aginagako jaiak ostiral honetan hasi eta urriaren 7ra arte luzatuko dira / 06-16

ARGAZKIA: NOAUA

**Emakumeei
aholkularitza legala
eskainiko dien
zerbitzua, martxan** / 05

**Gasteizko
manifestaziora
joateko autobusa
antolatu du Ernaik** / 21

**Oihana Eizagirre
abeslaria: "Atzerrian
ondo hartzen dute
euskal musika"** / 22

**'Emakumeok
mugimenduan'
ekimena aurkeztuko
dute ostiral honetan** / 26



Dubai, Oman, Abu Dhabi



IRTEERA 2024ko Aste Santua

Noaoak gidatutako talde bidaiak.
Lasarte-Oriatik irtenda.

943 37 36 13 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea, 10 • Lasarte-Oria



jarraitu gure sare sozialak



www.nooaa.eus



ANORGA TXIBI S.L. KRISTALDEGIA



Beirazko itxitura sistema berria!!!
perfil bertikalik gabe!!
zure balkoia itxi nahi baduzu galdeiguzu!
aukera zabalak!



·komertzial instalazioak ·beira bikoitza ·segurtasun beirak ·dutxa-itxiturak eta irristailuak
·ispiluak ·barandak ·kristal mota guztiak...



Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

Urriaren 8an, bertso-ibilaldia sagastietan barrena

Jakoba Errekondok gidatuko du ibilaldia eta Maialen Lujanbio eta Andoni Egaña bertsolariek girituko dute.

Aurreko urteen antzera, oraingoan ere sagastietan barrena bertso-ibilaldia antolatu dute Alkartasuna Usurbilgo Base-ritarren Kooperatibak, Sagar-
doaren Unibertsitateak eta Usurbilgo Udalak, urriaren 8rako. Goizeko 10:00etan Aginagako plazatik abiatuta, "sa-

gardoaren paisaia kulturala ezagutzeko parada" izango da. Txango honetara animatzen direnek, bidelagun izango dituzte Maialen Lujanbio eta Andoni Egañaren bertsoak eta Jakoba Errekondoren argibideak. Izen-ematea: alkartasuna@usurbil.com / 943 361 114.



Goizeko 10:00etan abiatuko dira Aginagako plazatik. Aurrez eman behar da izena Alkartasunara deituz (943 36 11 14) edo idatziz (alkartasuna@usurbil.com).

Garbigune mugikorra, Kalezarren

Irailaren 28tik aurrera, garbigune mugikorra Kalezarren izango da. Era honetan, etxeko hondakinen berrerabilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe. Urriaren 5etik osteguna, garbigune mugikorra Usurbilgo kaxkora eramango dute.

Urriaren 2an, gurasoei zuzenduriko bilera Gaztelekuan

Gaztelekuan 12 urtetik aurrerako gazteek parte hartzen dute. Urriaren 2an astelehena, gurasoentzako aurkezpen bilera izango da Gaztelekuan bertan. Arratsaldeko 18:00etan hasiko da. Egoitza San Inazio kalea 3 helbidean dago. Harremanetarako: 688 713 838 / gaztelekuausurbil@gmail.com

Ostiral honetan, Sarek deituriko elkarretaratzea

Udako etenaldiaren ostean, bueltan da Sarek hilero azken ostiraletan deitu ohi duen elkarretaratzea.

Mikel Laboa plazan

Datorren hitzordua, irailaren 29an ostirala, arratsaldeko 20:00etatik aurrera Mikel Laboa plazan.

Nerea Ibarzabalen 'Bar Gloria' aztertuko dute Sutegin

Urriaren 17an asteartea, literatur solasaldi berri bat egingo dute Sutegi udal liburutegian. Honakoan, Nerea Ibarzabal Salegiren *Bar Gloria* (Susa, 2022) nobela hartuko dute hizpide. 19:00etan hasiko da ekitaldia eta egilea bertan izango da. Nobelaren hainbat ale liburutegian dituzue eskuragarri.

noaua

TOKIKOM

Argitaratzailea:
Noaua Kultur Elkarte
Bordaberrí 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatorra:
Imanol Ubeda.
Idazkaria:
Alaitz Aizpurua.

Erredakzio kontseilua:
Aritz Lasarte, Ixaso Orbeagozo,
Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna:
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzaleak:
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 2.980 ale.
Imprimategia:
Antza inprimategia. Zirkuitu
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

IRITZIA



AINHOA AZPIROZ EIZMENDI

Alarma gehitxo

Mingainetik kendu didazu esan ohi da esatera goazen hori aurretik beste norbaitek esaten duenean, justugatik aurreratu zaigunean. Horixe pasa zitzaidan Berrian Mikel Elorzaren *Alarmismo* meteorologikoa iritzi artikulua irakurri nuenean.

Bat egiten dut Elorzak dioenarekin; gehitxo iruditzen zait. Gauza bat da eguraldiaren iragarpena egitea eta bestea alarma batetik bestera ibiltzea: orain horia, gero laranja, hurrena berri horia, biharamunean gorria... edo egun berean denak.

Hiztegian lehendik genituen hitzak alarma hitzarekin lotuta aurkezten dizkigute orain: zaparrada, euria, kazkabarra, ekaitza, bero sapa, sargoria, hego haizea... dena da arriskutsua; dena hori, laranja edo gorri.

Muturreko eguraldi agerpenak bizi ditugu, hala da; golf piloten tamainako izotz puskak utzi dituen kazkabarra ikusi dugu; termometroa egun askotan egon da 35°Ctik gora, bero itogarria eraginez; haize zakarra sarri eta gogor iristen zaigu; euriteek uzta hondatzen dute... Hori horrela da, baina niri ere gehitxo egiten zait "eguneroko alarma eta alerta erauntsia".

Era berean, ulertzen dut instituzioek alarmak iragaritzeko duten jarrera. Norma-



"Orain horia, gero laranja, hurrena berri horia, biharamunean gorria... edo egun berean denak".

la da, edozein hondamendi, istripu edo gertaeren aurrean haiengana jotzen baitugu kexatzera, exijitzera eta indemnitzazioak eskatzera: kaleren estropezu egin baldin badugu, udalaren errua da koska ez kentzeagatik; haizeak adarrak puskatu eta bide erdian geratu baldin badira, etor daitezela udaltzainak edo ertzainak gu pasatzeko bidea libratzera; elurra egiten zuenean lehen baserrietan norberak irekitzen zuen bidea atarian, orain herriko langileei, diputaziokoei edo dena

**"GEHITXO
EGITEN ZAIT
EGUNEROKO
ALARMA ETA
ALERTA
ERAUNTSIA"**

delakoei exijitzen diegu lan hori egin dezaten; deshidratatzen baldin bagara, ez da ura edan ez dugulako, baizik eta ez digutelako abisatu 40°C eta bero itogarria egingo zuela. Horrela jarrita gaude, ardua besteei pasatzen iaioak bihurtu gara. Eta hori ikusita, normala da instituzioek alarma egoerak iragartzea; ez dezagula esan abisatu ez dutenik.

Bata bestearen aitzakian, alarmismo meteorologikoa nagusitu zaigu udako hilabeteetan. Udazkenean eta neguan ere horrela jarraitzen baldin badugu, zuri-beltzeko telebista eskatuko diot Olenztzerori. Eta azaroaren 30ean piztuko den alarma moreari begira jarriko naiz, beste mota bateko alerta baita. Bueno, Usurbilen urriaren erdialdean ere astinduko da kolore morea.

NOAUA! TXIKI

"Kotxeko maleteroa goraino beteta eraman genuen Orioko Meskitara"

Aurreko astean, Aginaga Herri Eskolatik Marokora eramateko material bilketa jarri genuen martxan.

Familiek mantak, neguko arropa, garbiketa produktak, haur txikiak zoko partelak, esne hautsa, zapatak... Ekarki zituzten, besteak beste.

Kotxeko maleteroa goraino beteta eraman genuen Orioko Meskitara. Esker onez hartu gintuzten eta barrura sartzeko gonbita egin ziguten euren lana nola antolatzen zuten ikusteko.

Aginagako Herri Eskolatik eskerrak eman nahi dizkiegu familiei horrelako ekimenean parte hartzeko borondatea dutelako!

Aginaga Herri Eskola



"Eskolatik eskerrak eman nahi dizkiegu bilketan parte hartu duten familiei". ARGAZKIA: HERRI ESKOLA

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

txirriStra
· PLATER KOMBINATUAK · BOKATAK · PINTXOAK
TABERNA
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Atxi
· bazkariak EGUNERO
· afariak ostirala eta larunbata
© 943 362725 · © 688 690 361

Aholkularitza juridikoa eskaintzen duen zerbitzua martxan da

Emakumearen Etxea ireki bitartean, Potxoenean arituko dira Irule abokatu taldeko ordezkariak.



Macarena Mugica (argazkian) eta Garazi Plazaola abokatuak Potxoenean izango dira bi astez behin.

Emakumeei aholkularitza juridikoa eskainiko dien zerbitzua martxan da. Udalak aditzera eman duenez, interesa agertzen dutenek "ordubeteko aholkularitza jasotzeko aukera izango dute". Irule abokatu taldeak eskainiko du zerbitzu hau.

Askotariko kontsultak

Banaketa, dibortzioa, emakumeen kontrako erasoei buruzko prozesu penalak, dibortzio prozesuetatik sortutako gatazkak, mantenu pentsioen ordainketa ezak, bisita erregimenen ez betetzeak, atzerritartasunarekin lotutako arazoak, etxeko langile zein gainontzeko langile emakumezkoen kaleratzeak, diskriminazioa,

eskubideei buruzko informazioa, laguntza sozialak eta bestelako kontsultak.

Egutegia

Hilean bi egunetan, asteazketan, 15:00etatik 18:00etara:

- Urriak 4 eta 18.
- Azaroak 15 eta 29.
- Abenduak 12 eta 18.

Hitzordua hartzeko

Udaletxean aurrez aurre, edota telefonoz: 943 37 19 51.

Iruleko abokatuaren eskutik

Macarena Mugica eta Garazi Plazaola abokatuak sortu zuten Irule abokatu taldea. Zerbitzu juridiko eta psikosoziala eskaintzen dute, ikuspuntu feminista batetik.

Beterri-Buruntza mankomunitateak enplegu soziala sustatzeko bi programa iragarri ditu

Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo udalek osatzen dute Beterri-Buruntza mankomunitatea. Eskualdeko pertsonen gizarteratzea, prestakuntza eta ibilbide soziolaboralak sustatzeko helburuarekin, bi programa abiarazi dituzte.

Auzolanberri: Mendeko pertsonentzako arreta eta zaintza

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 'Elkar ekin' programarekin bat egiten du. 370 orduko ikastaroa, profesionaltasun ziurtagarria jasotzen duena oinarri bezala eta prestakuntza osagarria, praktikaldi bekatuak enpresan eta kontratazio dirulaguntzen bidezko laneratze prozesuak ahalbidetzen dituena. Auzolanberri proiektua urrian hasi eta martxora bitarte luzatuko da. Goizez, Erroak elkarteak Donostiako Martuteneko 27. poligonoan dituen instalazioetan.

Informazio gehiago: 943474083 telefono zenbakian edo enplegu_soziala@beterriburuntza.eus helbidean.

"Gure artean, emakumeak: talentuak eta aukerak" programa

Andoainen eskainiko da, irailetik abendura bitartean, Gazte Lokalak duen egoitzan.

Behar ezberdinak dituzten emakumeen arteko sarea erai ki eta esperientzia berriak ahalbidetzea du xede programa honek.

Astean hirutan biltzeko aukera eskainiko zaie parte hartzaileei, helburu profesionala eta ibilbide soziolaboralak lantzen hasteko, oinarrizko digitalizazioa, inguruaren eza-gutza... landuz.

Informazio gehiago: 604553769 telefono zenbakian edo enplegu_soziala@beterriburuntza.eus e-posta helbidean.

Bi greba egun iragarri dituzte EAEko zerbitzu publikoetan

LAB, ELA, CCOO, SATSE, STEILAS eta ESK sindikatuak bi greba egun deitu dituzte Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako zerbitzu publikoetan.

Lan-baldintzak okerrera egin dutela salatzen dute

Azken urteotan zerbitzu publikoen kalitatea eta lan-baldintzak okertu direla ohar-

tarazi dute sindikatuen ordezkariak. Urriaren 25ean egingo dute lehen greba eguna eta abenduaren 19rako deitu dute bigarrena. "Eusko Jaurlaritzari, aldundiei eta udalei, erosahalmena bermatzea eta behin behinekotasuna %8ra murriztu arte enplegua kontsolidatzea" eskatzen dute sindikatuak.

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
eguneko menua · asteburuko menua
oilasko erreak, ogitartekoak, raziok...
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

Zuen
publizitatea
hemen
943 360 321
publizitatea@noaua.eus

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8, USURBIL
943 37 00 08

943 361 182
EROSKI / city
kale Nagusia 10, USURBIL



Urriaren 7ko Errio Egunean alan paseatu, arraunean egin edota piraguan ibiltzeko aukera izango da. ARGAZKIA: GORKA LASA.

Urriaren 7a, erriora itzultzeko eguna

Errio eta bere inguru ederrez gozatzeko aukera ezinhobea eskainiko du Aginagako Jai Batzordeak urriaren 7an. Modu ezberdinetan, altxor bizi hau ukitu, ikusi eta usaintzeko bide bat baino gehiago izango da. Errioaren bueltako kultura biziberritzea da antolatzaileen asmoa.

Zergatik erabaki duzue Errioaren Eguna txertatzea festen egitarauan?

Pixkanaka, belaunaldi berriak aurrera doazen heinean, errioarekin ahazten joan gara. Ez gara kontziente duela 50 urte Aginaga ia erriotik bizi zela. Angula enpresen booma izan zen, ia etxe bakoitzetik baten bat joaten zen angulak harrapatzeraz, gazte piloarentzat aurreneko lana Oriotik hondarra kargatu eta Aginagara ekartzea izaten zen... Gaur egun, Aginagan guztira 6-8 ala egongo dira gehienez. Errioko kultura galtzen ari dela ikusita, zerbait egin nahi zen. Horatik dator Errioaren Eguna.

Aginagak errioarekin zuen harreman ekonomiko eta emozionala hor dago noski.

Eta kirolarena. Bi Kontxako Bandera hortik datoz azkenean. Gaur egun, pentsaezina litzateke, Aginagatik traineru bat ateratzea. Pentsa, orduan, normaltzat jotzen zen Kontxako Bandera jokatzea. Lotura emozionala bada dudarik gabe. Badira oraindik ere errioari egunero bisita bat egin behar diotenak.

Zer harreman du egun Aginagako herriak errioarekin?

Gaur egun, 6-8 lagun gaude ala dutenak, anguletara joaten direnak. Horiexek azaltzen

"GAUR EGUN, AGINAGAN GUZTIRA 6-8 ALA EGONGO DIRA GEHIENEZ"

dira erriora; tarteka erriora buelta bat ematera, angula garaian anguletara. Handik aurrera, azaltzen diren bakkarrak Txokoaldetik Oriora doazen turistak dira edo, tarteka, Oriotik datozen arraunlariak entrenatzera. Aginagak errioarekin bizitu duena kontuan izanda, bapatean azkeneko hiru bat belaunalditan ze haustura egon den erriorarekin, penagarria da. Azkenean, errio guretzat ez da inoiz izan muga bat, bizitzeko modu bat baizik, elikagaiez horni-

"AGINAGAREN ESENTZIA GUZTIA ERRIOAREKIN LOTUA DAGO"

tzeko edo mugitzeko toki bat izan da.

Ontziolen herria izan da.

Itsasorik ez duen kostako herri bat da. Historiak hala erakusten du, egon den jardue- ra ekonomikoagatik, komunikazio bide ezinbestekoa izan da Aginagarentzat errioa. Pentsa, ontziolak kontuan hartuta bakarrik ze garrantzia izan duen mendeetan zehar. Gero, azken mendean, ontziolak murriztu ahala, beste egoera ekonomiko ezberdinak baliatzen jakin du Aginagak errioaren bidez.

Harreman honen galerak etendaldia ekarriko balu herria eta errioaren artean, zer galduko luke Aginagak?

Aginagaren esentzia guztia errioarekin lotua dago, beraz, hori dena galduko luke. Gure aro emankorra eta sustrai denak galtzen ditu Aginagak erriotik urrutiratuta.

Egoera hau irauli nahi duzue jaiotan ezta?

Bai. Halere, hasiera bat izatea litzateke asmoa, aurrerago ezin jakin zer eta nola egingo dugun, baina honek jarraipen bat izan behar du. Hau hasiera modukoa da, galdu du-

gun harremana berreskuratzeko.

Zer egin asmo duzue Erriorearen Egunean?

Begi Bistan enpresaren zerbitzua kontratatu dugu, Txokoaldetik Oriora jaitsierak antolatzen dituen. Berak ekarriko ditu piraguak eta padel surf egitekoak, tartean, padel surf erraldoi bat 8-10 pertsona gainean ibiltzeko. Gero, Iñaki Errasti Ondarrutik traineru bat ekartzekoa da bertan ibili ahal izateko. Aginaga bertako 3-4 ala eta ala gizon ere hor ibiliko dira, nahi dutenek erriorean paseatzeko aukera izango dute. Horrez gain, festa borobiltzeko jan-edana ez da faltako Mapil aldean, jubilatua parrilla pizteko asmotan dira.

Biltzeko tokia, beraz, Mapil izango da?

Bai, sarbide errazena hor dagoelako batetik, eta historikoki ere alagune nagusia hor izan delako, ontziola nagusia inguruotan zegoen. Horrez gain, festa giroa pixka bat deszentralizatu nahi dugu, Kaxkotik atera eta zabaldu. Mesedez, oinez gerturatu. Bide eta paseo polita dago bertara joateko eta oinez gerturatzeko deia egin nahi dugu, Mapilen ez baitago lekuri aparkatzeko. Erriorearen parte da erribera eta bertatik ikaragarrizko paseo polita dago Mapileraino, bai Aginagatik, Txokoaldetik eta Usurbildik. Egun borobila izan liteke, paseatuz gerturatu, erriorean ibili, haiketako eder bat dastatu eta berriz ere paseatuz etxeratze.

Zer ikusteko aukera izango dugu ala batera igota?

Duela bi urte, Itxaro Borda ibili zen hor. "Euskal Amazonas" deitu zion inguru honi. Erriotik perspektiba osoa aldatzen da, perspektiba ezberdinetik ikusten dira zelaia, animalia, dena. Lasaitzeko



Errio bueltako paisaia ederrez gozatzeko aukera izango da. ARGAZKIA: GORKA LASA.

ederra da. Ez du zerikusirik Aginaga errepidetik ezagutu duenarentzat, erriotik ezagutzea. Zeharo ezberdina da. Altxor handi bat da galtzen ari garena.

Ikusgarri egitea altxor hori batoratzeko lagungarria izango da ezta?

Bai. Angulararen arrantza profesionalizatu egin nahi den honetan, oso oso zaila jartzen ari da anguletara joan ahal izatea. Horretarako, egin behar da txalupa legalizatu, karneta behar da, lizentzia lortu. Aginagan 6-7 lagun soilik hori lortzeko ahaleginetan ari dira. Aurrera begira ere pentsa zer esan nahi duen horrek. Guxienez, denak nahiko gazteak dira. Baina pena da. Azkenean, tradizioa galtzeko aukera ere hor dago. Ea hori transmititzeko gai garen.

Transmisioa aipatuta, garrantzitsua irudituko zaizue urte hasie-

**"FESTA GIROA
PIXKA BAT
DESZENTRALIZATU
NAHI DUGU"**

ran Aginagako eskolak ontziolen bueltan egindako lanketa?

Egunotan joan dira Aginagako eskolatik Orioko Mutiozabal ontziolara, beste ala bat egiteko proiektua abiarazi dute. Aginagako eskolakoak joan dira egunotan egitasmo horri hasiera ematera. Politu da aukera hori ematea. Aurrekoan, proiektuaren bukaeran joan ziren, azkeneko errematea ematera. Orain, beste proiektu berriaren hasieran egoteko aukera eman diete. Prozesua ikusiko dute, ala baten erakuntza nolakoa izango den, polita da. Halako ideiak buruan ditugu; egunen batean, Aginagan komunitatean ala bat eraikitzeke ideia esaterako.

Aipatu moduan, festetako ekimen hau abiapuntua izatea nahi duzue.

Asmoa behintzat bai. Azkenean, herria biziberritzea nahi izanez gero, ezin du azpiak sustrairik gabe hazi. Zentzua izan behar du. Aginagari bere

**"ERRIOTIK
PERSPEKTIBA
OSOA ALDATZEN
DA"**

nortasuna ematen diona errotu eta mantendu behar dugu.

Erriorearen Eguna bezalako ekimenen bidez, festetako eguneko eskaintza indartzeko apustua ere nabarmendu nahi duzue Jai Bartzordetik.

Gauak bere garrantzia du eta oso ondo dago, baina azkenean, komunitatea sendotzeko eguneko eskaintza egin beharra dago adin guztientzat. Eskaintza hau indartzen saiatu gara azken urte hauetan eta horretan segi asmo dugu.

Erriorearen Eguna horren islada da ezta, belaunaldiartekotasun hau sustatu nahi duzue?

Bai, etorri daitezela eta bakoi-tzak ahal eta nahi duenetik bizi dezala urriaren 7ko festa. Haurrak agertzea espero dugu, baina ilusio berezia egingo liguke, garai batean erriorean ibiltzea normalizat izan eta agian urte askotan erriore zapaldu gabe egon diren adinduak etortzea. Pozgarria litzateke jende hori alan paseatzen ikustea.

Garai batean bezala, erriore bueltatzea azken finean?

Saiatuko gara, alara ahalik eta errazen igo, jaitsi eta paseatzeko aukera ematen adinduei. Gazte eta heldu hainbatek ere adierazi digute traineruan ibiltzeko ilusio berezia dutela. Askorentzat erriorean barneratzeke lehenengo aukera izango da. Adin guztientzako da. Aginagan soilik ez, Usurbilera begira ere jende asko eongo da erriorean behin ere ibili ez dena, eta aukera ederra da horretarako. Aukera hori aprobetxatu! Gainerakoan, egitarauko liburuxkaren sarreran adierazi moduan, urtean zehar egoten dira momentuak lanerako eta herrigintzarako, baina hartu tarte bat egunotan, mundu kaotiko eta estresatu honetan eta gozatu San Praxiekuek topera; sargardoaren txinparta dela, sardinak direla, gauetako kontzertuak direla... Gozatu!



Iñaki eta Enaitz Errasti, Aginagako San Praixkuen hasierako protagonistak. NOAUA!

"San Praixkuetarako nirekin akordatzeko asko poztu nau"

IÑAKI ERRASTI ETA ENAITZ ERRASTI KIROLARIAK

Aginagako jaien hasieran omenduko duten Iñaki Errasti eta ondorengo pilota jaialdian parte hartuko duen seme Enaitz elkarrizketatu ditu aldizkari honek, San Praixku jaien atarian.

Nola jaso duzu jaietako hasiera emateko gonbita?

Iñaki Errasti: Sorpresaz eta poz handiz. San Praixkuetarako nirekin akordatzeko asko poztu nau. Ohore handia da niretzat jaien hasierako txupinazoa botatzea, eta gehienbat hori, nirekin gogoratzea. Hortxe egongo gara gustura.

Zer adierazteko baliatu nahi zenuke?

I.E.: Errespetuz, ondo pasatzeko, ez daudenekin gogoratu eta festez gozatzeko. Azkenean, bizitza bakarra izan eta gozatu beharra dagoela.

Iraila heldu da. Hilabete oso ezberdina da biontzat?

I.E.: Oraintxe amaitu dugu estropaden denboraldia. Arraunlarietako urtea luze joaten da. Lehiaketa udan izaten da. Horregatik, nire azken 23 urteotako jai egunak San Praixkuei lotuak izaten dira, iraila amaieran eta urrian.

Enaitz Errasti: Gu oraintxe hasten gara entrenatzen, baina nahiko lasai halere. Aginagan entrenatzen dugu Usurbilgo klubarekin. Lau gara gure adinekoak eta bi txikiagoak. Gustura aritzen gara.

Estropaden denboraldia amaitu berria duzue Iñaki. Zer nolako balantzea egin dezakezu joandako urteaz?

I.E.: Positiboa. Egia esan, oso gustura amaitu dugu. Agian, aurtengoa izango zen nire denboraldi zailena Ondarroan, baja asko izan nituelako. Gazteen belaunaldi berria zetorren baina goiz zen haietzat goiko mailan lehiatzeko. Mentalizatuak ginen denboraldi hasieran larri ibiliko ginela aurten, mailari eusteko. Azkenean, ordea, uda ikusita

"OHORE HANDIA DA JAIETAKO TXUPINAZOA BOTATZEA"

IÑAKI ERRASTI ARRAUNLARIA

uste baino gutxiago sufritu dugu. Abuztua, gainera, oso ona egin dugu. Lehenengo txanda irabazteko gai izan gara estropada askotan. Gero, Kontxan sailkatzearekin sentsazioa dugu motza bezala geratu zaigula denboraldia, eta hori seinale ona da. Arraunlariek ere hori transmititu didate eta horrekin jada gustura gaude.

Beste urtebetez luzatu duzu kontratua Ondarroarekin.

I.E.: Beste urtebetez han jarraituko dugu, jada zazpigarren denboraldia. Urteak ere konaturatzeko pasatzen dira baina bi aldeak oso gustura gaude. Egia esan, han lan egiteko erraztasun osoa ematen didate eta alde horretatik oso gustura nago, jendearekin ere bai. Oraingo behintzat, beste urte bat egingo dugu han eta gero geroak.

Herriari oso lotutako kluba da ezta?

I.E.: Bai, egia esan. Azken urteetan, beheko kategorietan ume piloak apuntatzen da, ehun umetik gora. Azkenean, plaza kopurua mugatu beharra izaten da. Taldea goiko mailan egoteak ere hori du azkenean. Orain pazientzia handiz egindako azken bospasei urteetako harrobi lanaren emaitza ikusten hasi gara. Klubean jende asko dabil elkarlanean, asko bolondres eta hori eskertzekoa da.

Zeure kasuan Enaitz, noiz hasi zinen pilotan?

E.E.: Txikitatik, LH2n pilotan hasi nintzen Usurbilen, hasieran lagunekin. Gero DBHn Aginagara etorri ginen. Kide gutxiago gabilta, jendeak futbola edo eskubaloia hautatzen du. Aurten, ordea, lau elkartu gara eta gustura gabilta.

Nola egituratzen da zuen denboraldia?

E.E.: Irailean hasten gara Gipuzkoako binakako txapelketarekin. Astero partidak izaten ditugu. Hortaz aparte, herrie-

→ tako txapelketak izaten ditugu, jaietan Aginagan izango dugun neurketaren antzera.

San Praixkuetako pilota jaialdian parte hartuko dute zurekin, besteak beste Miriam Arrillagak eta Aitor Arangurenak. Zuentzako erreferenteak dira?

E.E.: Bai, azkenean txikitatik eskolan haiekin ibili naiz eta biak noraino heldu diren ikusita haien maila izatera heldu nahi eta arreta jartzen duzu haiengan, are gehiago, hemen gertukoak izanda.

Nola sortu da jaialdi honetan estreinakoz parte hartzeko aukera?


E.E.: Azkenean, hemen entrenatzen dugu. Aukera eman ziguten parte hartzeko, izan ere lau jokalaria izanda partida ederra egiteko aukera sortu da. Profesionalekin jokatu ahal izatea guretzako aukera ederra da. Gainera, hemen normalean ez da jende asko izaten gure partidak ikusten, eta oraingoan, ziurrenik, frontoian jende asko egongo da. Guretzako partida oso berezia izango da.

Festei buruz ari gara, Erriorearen Eguna urriaren 7an. Parte hartzeko asmotan zara Iñaki?

I.E.: Hor egongo gara lagun-tzen. Ea eguraldiak laguntzen duen eta esperientzia polita izaten den.

Errio barruan ibili zaretenontzat, zer nolako ikusmira dago bertatik?

I.E.: Egia esan, oso ikusgarria da. Hemendik Oriora zeharo aldatzen da perspektiba, oso toki politak ditugu. Errepidearen zarata hain gertu izanda, beste lasaitasun batean egoten zara. Bista ederrak daude. Adibide bezala esan dezaket, Orion arraunean hasi nintzeanean, entrenamenduetan normalean itsasaldera edo Aginaga aldera etortzen ginen. Horretara ohitu eta gero, hamar urte igaro nituen kanpoan arraunean, Astilleron, Arkoten,



Iñaki eta Enaitz Errasti, festei hasiera emango dieten Eliza Zaharraren atarian. NOAUA

Kaikun. Gero Oriora bueltatu nintzen 2014an. Berriz ere inguruotan entrenatzera itzultzea zirraragarria izan zen. Azkenean, askotan urrutira joaten gara gertukoak ezagutu gabe. Egia da, ez dagoela sarbide errazik, pena da. Hala-kerik balego, gehiago aprobeztatuko zela iruditzen zait. Jendea animatu nahi nuke Erriorearen Egunean edo ahal duenean esperientzia hori bizitzera.

Nola biziko dituzue ate joka dituzuen datozen jaiak?

I.E.: Ahal den ondoen, ahalik eta ekintza gehienetan parte hartuz. Herri-afarirako txartelak hartuak ditugu. Gaez ere zertxobait ibiliko gara, baina ez garai batean bezala, egunez gehixeago aprobeztatuko dugu. Gazteei utziko diegu gaua.

E.E.: Ilusioa dut gehienbat oilasko biltzaileetarako eta kontzertuetarako. Ahal den

"PROFESIONALEKIN JOKATU AHAL IZATEA AUKERA EDERRA DA"

ENAITZ ERRASTI PILOTARIA

ekintza guztietan parte hartzeko asmotan naiz.

Aginagarren topagune garrantzitsua dira jaiak ezta?

I.E.: Hemen jende asko dago jaietan bakarrik ikusten duzuna. Jende askok koadrilako afaria egiteko baliatzen du herri-afaria. Herri-afariko giroa oso gustuko dut horrengatik.

E.E.: Lehen, gure adinekoak Aginagako eskolan egunero egoten ginen. Gero, Udarregira joatean autobusean elkartzen ginen, baina orain batzuk DBH bukatuta gutxiago egoten gara haiekin, Zarautzera edo Lasartera joan baitira ikastera. Jaietan egoteko aukera izango dugu.

Orain arte zer eman dizue bioi kirolak?

I.E.: Neure bizitzan kirola oso garrantzitsua izan da. Bizikletan, atletismoan, futbolekin aritutakoa naiz. Toki ezberdi-

"HEMEN JENDE ASKO DAGO JAIETAN BAKARRIK IKUSTEN DUZUNA"

IÑAKI ERRASTI ARRAUNLARIA

netako jendea ezagutu dut, lagun asko mantentzen ditut eta gustuko zaletasunetik lanbidea izateko zortea izan dut. Adinean aurrera goaz, ordea, ez da erraza bale esatea, baina arraunlari gisa azken txanpan nago. Arraunerako jendea izanez gero arraunean ez egitea da asmoa. Baina ikusiko dugu hurrengo urteko taldea nola antolatzen dugun.

E.E.: Oso gustuko dudana kirola egiten dut. Azkenean, hemen entrenatzen dugu Adunakoekin, Nafarroakoekin... Ondoko herrietakoak elkartu eta jende berria eza-gutzea eman dit.

Iñaki zeure kirol ibilbidetik zer helarazi nahiko zenioke semea-ri? Eta zuretzat Enaitz zer zai-ru baliagarria aitaren kirol ibilbidetik?

I.E.: Zerbait lortzea kosta egiten dela eta beti jator ibiltzeko, lagunak izateko. Berea egiteko, saiatzeko gauzak ondo egiten. **E.E.:** Gauzak lortzeko saiatu egin behar dela, entrenatu behar duzula. Askotan esaten dit partida txarra egitean ez zarela hain txarra eta partida oso ona egitean ez zarela oso ona. Beraz, hor oinakin lurrean mantentzea.

"Garrapata pirataren istorioak itsasoaren eta naturaren garrantzia azpimarratzen du"

IKER ETXARRI AKTOREA

'Pirata Garrapataren abenturak' Patata Tropikala antzerki taldearen ikuskizun bat da, bakarka eskaintzen duzuna. Aginagan lehen aldiz taularatuko duzue obra hau, ezta?

Antzezlana baditu urte batzuk. Ez da berria eta sortu genuenetik hona egokitzen joan gara. Patata Tropikala taldearekin zazpi emanaldi ezberdin ditugu guztira. Besteetan, Judith Poves nire kidearekin aritzen naiz.

Gaztetxoaren artean, Garrapata piratak oso ondo funtzionatzen duen seinale.

Hori da. Euskal Herriko txoko askotan izan gara. Nafarroan, Araban, Bizkaian... Ez nuke jakingo esaten zenbat emanaldi eskaini ditudan ikuskizun honekin.

Igande honetan Aginagan izango zarete. Aurretik izan zarete bertan, ezta?

Beste ikuskizun batzuekin egon izan gara aurretik. Badira urte batzuk ez gara Aginagara joan. Pandemia aurretik izango zen azkena. Ia beti gabonetan joaten ginen, eta ludotekan aritzen ginen.

Garrapata pirata eta bere lagun guztiekin agertuko zara aurtengo jaietan. Antzezlana hurbiltzen diren gurasoek eta umeek zer topatuko dute?

Txotxongiloekin kontatzen den istorio bat da hau. Magia ere badu, malabare jokoak... Ni narratzailea naiz, antzezlea eta txotxongilo-egile. Ez naiz magoa baina magia truko batzuk dakizkit eta horiek ere txertatzen ditut narrazioaren barruan.



Iker Etxarri eta 'Pirata Garrapata' Santuenean izan ziren duela bi aste.

Malabareekin gauza bera egiten dut.

Eta antzezlana honen mamian zer dago?

Itsasoaren eta naturaren garrantzia azpimarratzen du istorioak, eta nola gauza txiki

batekin dena kakaztu eta kutsatu daitekeen. Itsasoaren kutsaduraz hitz egiten da lan honetan. Didaktikoa ere bada; haurrei kate trofikoak zer den azaltzen diegu, eta kate honek zer nolako garrantzia duen. Oso anitza da.

"PIRATA GARRAPATARENA, TXOTXONGILOEKIN KONTATZEN DEN ISTORIO BAT DA. MAGIA ERE BADU, MALABARE JOKOAK..."

Santueneko saiora adin guztietako haurrak hurbildu ziren. Adin ezberdinetako umeentzat dela esan daiteke?

Hala da. Duela egun gutxi Gorlizen izan nintzen, eta Haur Hezkuntzako ikasleen aurrean aritu nintzen. 2-3-4 urteko haurrekin. Santuenean kokoragoak ziren umeak, baina unean uneko publikoaren arabera moldatu egiten dut erritmoa, egiteko era, txisteak...

Pilota jaialdirako sarrerak

Ostiral honetan, hilak 29, gaueko 21:30ean hasiko da pilota jaialdia Ariztitxo frontoian.

Sarrerak salgai dituzue jada entradasfronton.com atarian. Aginagako Arrate tabernan topatuko dituzue bestela. Eta egunean bertan, frontoi ondoan kokatuko duten salmentarako lehiatilan ere eskuratu ahal izango dira.

1. partidaren, gaztetxoak:

Aiert Aburuza-Ander Pagola / Aimar Alejo-Enaitz Errasti.

2. partidaren, emakumezkoak:

G. Zabaleta-I. Erasun / M. Arrillaga-N. Mendizabal

3. partida, estelarra:

Alberdi II-Aitor Aranguren / Artola-Iztueta

Herri afarirako txartelak Arraten eskura daitezke

Jaietako otorduetarako txartelak aurrez eskuratu daitezke. Irailaren 30ean ospatuko den herri afarirako txartelak adibidez, 30 eurotan topatuko dituzue Arraten. Haurren kasuan, txartela 15 eurotan jarri dute salgai.

Urriaren 6ko gazte afarirako izen ematea irailaren 29an amaituko da

Urriaren 6ko gazte afaria Aginaga sagardotegian egingo da. Txartelaren prezioa 30 eurokoa da. Izena irailaren 29a baino lehen eman behar da, honako telefono zenbakira deituz: 616 93 35 56.



ARGAZKIA: NOAUA

Sagardo eta txorizo dastaketa

Igande honetan jokatuko da mus txapelketa irekia. 16:00etatik aurrera, Eliza Zaharrean. 17:00etan Pirata Garrapataren bisita jasoko dute gaztetxoek eta arratsaldeko 19:00etan haragi egosia, txorizoa eta sagardoa banatuko dute. Otordua trikitilariak girotuko dute.



ARGAZKIA: NOAUA

Sardin erreak, San Praixku egunean

San Praixku eguna, urriaren 4a, asteazkenarekin egokitu da aurten. Aginagako jaietako egun seinalatuan, sardin erreak eta euskal sagardoa banatuko dute. Dastaketak irauten duen bitartean, toka txapelketa jokatuko da. Buruhandiak ere, batetik bestera ibiliko dira.

Ordu-tegi gehiago eskuratu nahi badituzu, hemen aurkituko dituzu:

* NOAUA! * UDALETXEA

Edo deskargatu ezazu www.noaua.eus-etik edo QR kodea eskaneatu zure mugikorrarekin!

tren eta autobus

ordutegia 23/24

Aginagako jaiak: lehen asteburuko egitaraua

Irailak 29, ostirala

- 18:30 Txupinazoa. Eliza Zaharreko balkoian pregoi eta brindisarekin.
 - 19:00 Txosna irekiera eta buruhandiak.
 - 19:00 Buruhandiak.
 - 19:00 "Son de hoy" musika talde kubatarraren emanaldia Eskola Txikiaren aurrean.
 - 21:00 Pilota jaialdia Ariztixto pilotalekuan. Sarrera: 15 euro (Arraten, egunean lehiatilan edo entradasfronton.com atarian eskuragarri. Herri afariko sarrerarekin batera erosiz gero, 40 eurotan).
1. partida: gaztetoak.
Aiert Aburuza-Ander Pagola
Aimar Alejo-Enaitz Errasti

2. partida:

- Goiuri Zabaleta-Itxaso Erasun
Miriam Arrillaga-N. Mendizabal
3. partida:
Alberdi II-Aitor Aranguren
Artola-Iztueta

Irailak 30, larunbata:

Oilasko Biltzaileen Eguna

- 05:30 Oilasko biltzaileen gosaria.
- 06:00 Oilasko biltzaileen irteera Atarialde elkartetik.
- 11:30 Oilasko biltzaile txikien irteera Mapildik.
- 18:00 Txosna irekiera.
- 18:30 Jon Ostolaza eta Rakel Pujana trikitilariekin saioa Eskola Txikiaren aurrean.
- Ondoren, herri poteoa.



Larunbatean, oilasko biltzaileak goizean goiz abiatuko dira Atarialde elkartetik.

- 21:00 Herri afaria. Sarrerak Arraten: 30 euro helduak eta 15 euro haurrak.
- 23:00 Txosna irekiera.
- 23:30 Erromeria Laiotzekin.
- 03:00 Dj Jotatxo Eliza Zaharrean.

Urriak 1, igandea

- 16:00 XL. Mus Txapelketa Irekia Eliza Zaharrean.

Izen-ematea 15:30etatik 16:00ak bitartean.

- 17:00 "Pirata Garrapataren abenturak" antzerkia, txontxongiloak, malabareak eta magia ikuskizuna Patata Tropikala konpainiaren eskutik. Eskola Txikiaren aurrean.
- 19:00 Haragi egosi, txorizo eta sagardo banaketa trikitixaz lagunduta.

URDAIRRA
Sagardoa

Ondo pasa San Praixkuak!

📞 **943 37 26 91**
📍 **AGINAGA**

📱 @urdairasagardotegia | www.urdairasagardotegia.com

Ondo pasa San Praixkuetan!

KARABANAK
Bigarren eskuko salmenta, konponketak eta mantenua
24 orduz hibernatzeko zerbitzua
Alokairu zerbitzua

NAUTIKA
Salmenta, konponketak eta mantenua
24 orduz hibernatzeko zerbitzua
Alokairu zerbitzua

Intxaurreta z/g, Aginaga, Usurbil - Tel.943 362 660
www.noraiantautika.com - info@noraiantautika.com



ondo pasa
jaietan!



Mutiozabal etxea 17, AGINAGA 943 36 10 81 atxega@atxega.com www.atxega.com

Ondo pasa San Praixkuetan!



☎ 676 899 812

Erriberako Kalea 7, Aginaga
20170 GIPUZKOA

Festetan ere...
**OGITARTEKO
APARTAK!!!**



Aginagako
eskolako ikasle eta
irakasleek jai
zoriontsuak opa
dizkizuegu!



Aginagako jaiak: bigarren asteburuko egitaraua

Urriak 4, asteazkena: San Praixku Eguna

- 11:00 Meza Nagusia.
- 12:00 Jubilatuen hamaiketako Aginaga Sagardotegian. Beñat Gaztelumendi eta Agin Laburu bertsolariek girotuko dute otordua.
- 18:00 Herri kirolak frontoian, herritarren arteko erronkaren hasiera.
- 19:30 Sardina eta sagardo banaketa.
- Bitartean, XXXIX. Toka txapelketa eta buruhandiak.

Urriak 6, ostirala: Umeen Eguna

- 10:00 Umeen jolasen hasiera.

- 13:00 Umeen bazkari goxo-goxoa.
- 16:00 Puzgarriak frontoian.
- 17:30 Txokolate goxo-goxoa.
- 18:30 Ur zezenaren entzierroa Aginaga Sagardotegitik plazara eta buruhandiak.
- 19:00 Musikaz girotutako poteoa.
- 21:00 Gazte afaria Aginaga Sagardotegian. Prezioa: 30 euro. Izena emateko idatzi irailaren 29aren aurretik: 616 93 35 56.
- 23:00 Txosna irikiera.
- 23:30 Kontzertuak Eliza Zaharrean: Viafara eta Ameba.
- Ondoren, Dj Urdaira Eliza Zaharrean.



laz bezalaxe, Agin Laburu eta Beñat Gaztelumendi bertsolariek girotuko dute jubilatuen hamaiketako. Urriaren 4an asteazkena, Aginaga sagardotegian.

- Egunak argitzean, denok etxera.

Urriak 7, larunbata: Errioren eta Kintoen Eguna

- 11:00 "Gozatu errioz": piraguak, alan paseoak eta traineruan arraunean ibiltzeko aukera eta hamaiketako.
- 18:00 Txosna irekiera.

- 19:30 Distopia Elektrotxaranga!
- 00:00 Kontzertua eta erromeria frontoian: Herenegun eta Bidebatez.
- 03:30 DJ ZKN Brothers Eliza Zaharrean.
- 08:00 Errefus bilketa.

Antolatzaileak: Aginagako Jai Batzordea.

·FATXADAK ETA TEILATUAK
·ERAIKUNTZAK
·BARRUKO BERRIKUNTZAK
·URALITA KENTZEKO ENPRESA
BAIMENDUA



630 90 02 79 AGINAGA

*Ondo pasa
San Praixkutan!*


AGINAGA • ☎ 943 362 773 - 667 694 769



VDA. E HIJOS DE
**JERONIMO
IZAGUIRRE** S.L.



Ondo pasa
San Praixkuak!



943 362 146 AGINAGA
www.mariscosizaguirre.com



Angulas Mayoz s.l

AGINAGAKO ANGULAK
BEREZKO BIBEROAK

Ondo pasa
San Praixkutan!



TOKI BERRI Z/G AGINAGA 943 36 15 94

 **Ondo pasa San Praixkutan!**

Sagardotegia



URTE OSOAN ETXEAN EGINDAKO SAGARDOA TXOTXETIK!

Berezitasuna; Sagardotegiko menua
Karta zabala, ikatz parrilan erretako arrainekin.
Familiako ospakizunak, bataio, komunio, enpresa afariak...
Ezkontzetarako jangela egokitua.
Parkina eta umeentzat jolastokia.

Tfno-fax: 943 36 67 10 - Aginaga auzoa, 20170 USURBIL
info@aginagasagardotegia.com - www.aginagasagardotegia.com

AGINAGAN HOTELA

24 gela eroso eta guztiz ekipatuak:
aire girotu eta berogailua, TV, WIFla, bainugela konpletoa...
Diseinu moderno eta funtzionala
Energia berriztagarriz (geotermia) baliatzen da ur beroa eta klimatizazioa lortzeko.
Lan bidaia, oporraldi eta lasaitasunaz gozatu nahi duenarentzat **leku ezinhobea**.

Tfno-fax: 943 37 06 68 - Aginaga auzoa, 20170 USURBIL
info@aginagahotela.com - www.aginagahotela.com

Hotela * *



José María Larburu
Garraiatzailea



LARBURU

gruarekin ere egiten dugu lan

Garraioak

Larzusta z/g. AGINAGA  943 36 17 35 • 651 703 237



Oskar Alegria zinema zuzendaria eta Peru Galbete musikaria, aurreko larunbatean Mikel Laboa plazan eginiko aurkezpenean.

"Filma auzolan baten emaitza izan da"

'Zumeta 23' filmak jakinmin handia piztu zuen. Zubietako eta Usurbilgo proiektioetan jende ugari bertaratu zen. Oskar Alegria zinemagileak eta Peru Galbete musikariak esker oneko hitzak izan zituzten, "askatasun osoarekin" lan egiteko aukera izan dutelako.

"Plazer handia izan da. Eta ohorea". Oskar Alegria zinemagileak hitz hauekin hasi zuen larunbateko aurkezpen ekitaldia. Enkargu bat izan zela aitortu zuen. Horrelakoan, "enkargua hitza itsusia izan ohi da. Eta udaletxe batetik etortzen bada gainera...Baina pentsatzen hasita, Zumetaren murala ere beste enkargu baten emaitza izan zen. Eta beti esaten dut, duela 50 urte Zumetak bere ausardia eta bere balentria erakutsi zuen. Baina Usurbilgo Udaletxeak ere bai", margolariaren proposamena bere horretan onartu zuelako orduko udalak. "Herriko bihotzean jarria dago. Meritu handia du. Gure kasuan, eta distantziak distantzia, antzeko sententzia bizi dugu. Askatasun osoarekin egin dugu filma".

Oskar Alegriak eginiko proposamena ere bere horretan onartu zuen udalak eta proposatu bezala egin dute. "Normalean ez da horrela izaten, eh? Zinez eskertzekoa da", gaineratu zuen.

Zesta, pintzel bihurtuta

Bezperan, Zubietan aurkeztu zuen filma. Eta Zubietako frontoian egin bezala, Mikel Laboa plazako ekitaldian ere zesta baterakutsi zuen. "Zer dahau?", galdetu zuen lehen lerroan zeuden gaztetxoei begira. Be-

"FRONTOIA ISLATZEA ERE INPORTANTEA ZEN GURETZAT"

OSKAR ALEGRIA ZINEMAGILEA

rehala jaso zuen erantzuna: "Zesta!".

Oskar Alegriak hau erantsi zuen: "Eta pintzel bat ere bai". Zinemagileak aditzera eman zuenez, "ideia zen ez bakarrik murala nabarmentzea". Usurbil, Zumeta eta bere unibertsoa jasotzeaz gain, "frontoia islatzea ere inportantea zen guretzat. Frontoi baten atzean kokatu zuelako murala". Horregatik da frontoia Zumeta 23 film laburraren jokaleku nagusia.

Bertan ageri diren "bi pilotariak margolariak ere badira, eta

"ARTZEREN POEMA ONDO LOTZEN DA LABOAREN 'URTSUA UDA' KANTAREKIN"

PERU GALBETE MUSIKARIA

zesta da haien pintzela. Baina dantzariak ere badira. Zesta-puntistek adibidez, koreografia onirikoa dute. Peru Galbete are onirikoagoa egin du bere musikarekin".

'0 km' logikarekin egin

Filma egiteko modua ere nabarmendu nahi izan zuen Oskar Alegriak. "Baratzeetan esaten den bezala, '0 km' pelikula bat izan da. Hemengo kantarekin, hemengo musikarekin eta hemengo langileekin egin dagoelako. Auzolan baten emaitza izan da; hemen sortua, Zumetaren alde eta Zumetaren omenez".

Artzeren poesia, Laboaren doinua, Galbeteren trebezia

Peru Galbete arduratu da filma sonorizatzeko. Berak sortutako hotsek eta doinuek ezartzen dute filmaren erritmoa.

Elementu ezberdinak uztartu dituela azaldu zuen Peru Galbete. Alde batetik, Mikel Laboaren kanta instrumental bat baliatu du, *Urtsua uda* izenekoa. "Kanta honen inguruan, aspalditik banuen melodia bat egin, kantu horrekin lotuta zegoena". Behin proposamena jaso eta gero, "iruditu zitzaidan Joxan Artzeren poema txiki bat oso ondo josi zitekeela melodiarekin". Horixe bigarren elementua. "Poemak hauxe dio, *Bi punturen artean zein da biderik laburrena?* Eta erantzuna da: *biderik ederrena*".

Laboa eta Artzeren arteko lotura honela arrazoitu zuen Peru Galbete. "Zumetaren inguruan eginiko dokumental bat ikusi nuen duela urte batzuk: *Izenik gabe 200x133* (Enara Goikoetxea-Monika Zumeta)". Filmaren une jakin batean, Zumeta dudati bat ageri da. "Zalantza handiak zituen koadro batekin. Ez zuten bidea topatzen. Kapa asko egin zituen eta hasierako irudia oso atzean geratu zen azkenean, ikusezin. Hor konturatu nintzen Zumetaren lanak bazuela poema honekin zerikusia".



'Xumetik' herri ikuskizuna plazaratzea ahalbidetu duen lan-taldea. NOAUA

Xumetik sukaldatu arren, omenaldi itzela

Zubietako eta Usurbilgo 'Zumeta 23' film laburraren proiektzioak, sormen tailerrak, 'Usurbil Museo Irekia' bisita girotu bereziak eta 'Xumetik' herri ikuskizun handiak borobildu dute asteburuan Zumetaren muralaren mende Erdiko ospakizunen zikloa.

Herrira begira izan da azken mende erdi honetan. Dene-tarikusi eta entzun du, hainbat une gogoangarriren lekuko historikoa izan da, hamai-ka ekimen egin dira bere al-tzoan, egunerokoan bere ondotik igaro gara. Baina 50 urte bete dituen honetan entzun ahal izan dugu estreina-koz. Lehenbizikoz, hitza har-tu zuen Usurbilgo Kultur-guneak irailaren 23an antolatu-riko "Xumetik" herri jaialdi-aren baitan.

Hizketan aritu zitzaigun murala, musikak eta dantzak

giroturiko ikuskizun ezin ede-rragoan. Usurbilgo sorkuntza zigilua zeraman emanaldi landu, eder bezain hunkigarriaz gozatzeko aukera izan zuten Mikel Laboa plaza bete zuten ikus-entzuleek. Hasieratik amaierara, bi arreta gune na-gusi izan zituen emanaldiak; une oro arreta ezin piztuago mantendu zigutenak, oholtza batetik, eta omentzen ari ziren murala bera noski. Bien ala bien arteko lotura estua eta etenik gabekoa izan zen, haus-turarik gabeko hartueman gozoan, aipatu moduan, el-

karrizketa, musika eta dantza saio xume, hurbilekoen bidez. Txoria ere hegan etorri zen ikuskizun amaieran.

Xumetik, tokikotik sortua, emaitza itzela izan zen, herri ikuskizun erraldoia. Parte har-tu nahiz lekuko izan zirenen-tzat, ziur gogoangarria izango dena.

Bisita girotu jendetsua

Herri ikuskizun honen aurre-tik "Usurbil Museo Irekia" bisita gidatu girotua egin zu-ten. Nolaez, abiapuntua omen-duriko mende Erdiko Jose Luis

Zumetaren frontoi atzeko horma-irudia izan zen. Uda-rrigiren omeneko bertsolaria, Zendoian dagoen Usurbilgo artistaren beste sortze lan bat, Kale Nagusiko bere txoriak, Axpiren murala edota Aska-tasuna plazako Karlos Zaba-laren sortze lanak ere bisitatu zituzten jendetsua izan zen ibilaldian. Iruñe Etxabe triki-tilariak eta Maddi Aburruza panderojoleak izan dituzte bidelagun bisitariak eta sor-tzaileak geltokietan. Izan ere, esaterako, Aranerrekan egini-ko parkean Kimu taldearen txalaparta saio ederraz goza-tu ahal izan zen eta Ximona ta Dolox taldearen erromeria bizi-az amaieran. Une hunki-garria bizi izan zen, Zumarte Abesbatzak Kale Nagusian dauden Zumetaren txorien pareko balkoietatik "Txoriak txori" abestu zutenean. Jen-detsua izan zen arratsaldeko bisita gidatua baita goiz par-tean antolatu zituzten sorkun-tza tailerrak ere.



Euriagatik 'Zumeta 23' film laburra Zubietako frontoian aurkeztu zuten.



Peru Galbete eta Gu taldekoak, Zubietako kontzertuan.



Susana Martinen tailerrek gazte askoren arreta piztu zuen.



Buztinzulo taldekoen mahaian buztina lantzeko aukera izan zuten.



Usoa Zumetaren tailerrean parte hartu zutenak opari banarekin etxeratu ziren.



Monika Zumeta eta Nekane Alduntzinen tailerra kolore festa bilakatu zen.



Jendetza batu zen 'Usurbil Museo Irekia' bisita girotu berezian.



Zumarte abesbatzako kideen emanaldia, bisita girotuan.



Kaleetako sortze-lanetan barrena egin zuten bisita gidatu berezia.



Ximona ta Dolox taldeak dantzan jarri zituen bisita gidatukoak.



Zumetaren mural omenduaren aurrealdea, 'Xumetik' herri ikuskizunean.



Usurbilgo sortzaileek hezurmamitu zuten 'Xumetik' herri ikuskizuna.



Kimu taldeak abiarazi zuen gaueko emanaldia.



Herriko ahots paregabeek gozatzeko aukera izan zen.



Aztarrikant-eko kideek borobildu zuten 'Xumetik' zikloa.



Orbeldi dantza taldekoen saioa, mural omenduaren parean.



Gasteizko manifestaziora joateko autobus zerbitzua antolatu dute Usurbildik. NOAUA

"Gutako edonor izan daiteke"

Espetxeratzeko errekerimendua jaso duten Aitor Zelaia eta Galder Barbado gazte arabarrak aske uztea eskatzeko manifestazioa deitu dute larunbatean Gasteizen. Hara joateko deia egin du Usurbilgo Ernaik. Autobus zerbitzua antolatu dute.

Espetxeratzeko errekerimendua jaso dute Aitor Zelaia eta Galder Barbado. Bi gazte arabarrok aske uztea eskatu eta bizi duten egoera bidegabea salatzen diren protesta ekintzak egiten ari dira egunotan herri eta eskualdeetan. Mobilizazio nagusia, irailaren 30erako deitu du Ankerkeriari Stop! plataformak hainbat eragileren babesarekin Gasteizen. Arratsaldeko 18:30etan abiatuko da Artiumetik "Euskal Herria aurrera!" aldarripean. Hara joateko autobus zerbitzua antolatu du Usurbilgo Ernaik. Arratsaldeko 16:00etan abiatuko da Oiardo kiroldegi paretik. Izena aurrez eman ahal da Aitzagan eta Txiribogan jarri dituzten zerrendetan.

Herri gisa erantzuteko deia
Manifestazio horretan parte hartzeko deia egin du Usurbilgo Ernaik. "Herri bezala inplikatzeko gaitu eta herri bezala erantzun behar da. Bereziki, nahi da gazte bloke indartsu bat egotea. Era berean, ordea, izaera politikodun espetxeratzeko izanik, uste dugu herriko belaunaldi orotako jendea ere interpelatu egon beharko litzatekeela. Izan ere, oinarritzko eskubide zibil eta politikoez ari gara". Ildo horretan, "jendeak jakin behar duena da gutako edonor izan daiteke haien tokian egon daitekeena".

Ernaitik adierazi dutenez, bi gazteon auzia, "helburu politiko batzuen kontrako jarrera da, ez hainbeste indarkeriaren kontrakoa, baizik eta Euskal Herriaren kontrako jarrera bat

da". Horregatik argi utzi nahi dute, "Aitorren eta Galderren preso politiko izaera, hautu edo militantzia politiko batengatik zigortu dituztelako".

Aitor eta Galder gazteen kasuak erakusten du, Usurbilgo gazte antolakundearen esanetan, "militante independentistak, bereziki gazteria nola dagoen jo-puntuan Espainiako 78ko Erregimenari lotutako auzitegi kasik faxista hauen partetik, baina aldi berean ere Ertzaintzaren eta EAJren par-

"HERRI BEZALA INPLIKATZEN GAITU ETA HERRI BEZALA ERANTZUN BEHAR DA"

retik, kasu honetan zehazki inplikazio handia izan baitute".

Bizimodu erabat ziurgabea

2019ko otsailean atxilotu zuten Ertzaintzak bi gazte arabarrok Auzitegi Nazionalaren aginduz, hilabete batzuk lehenago Arabako Duran aurkitutako lehergaien arduradun zirelakoan. "Arma, munizioak eta lehergailuak edukitzea, eta horiek helburu terroristekin gordetzea eta trafikitzea" egotzi zieten. Ia urte erdi egin zuten behin-behineko espetxealdian. Muntaiia polizialtzat jo du Usurbilgo Ernaik orduan jazotakoa.

2021. urte hasieran epaitu zituzten. Launa urteko espetxe zigorra, urtebeteko zaintzapeko askatasuna eta hamar urteko inhabilitazioa ezarri zieten Zelaiari eta Barbadori. Iragan maiatzean Espainiako Auzitegi Gorenak Auzitegi Nazionalaren epaia berretsi zuen.

Denbora tarte honetan gutxian zehar, ziurgabetasun betean bizi izan direla salatu du Usurbilgo Ernaik, "beti ohartaraziz edozein uneetan atxilotuak izan zitezkeela. Prozesu honek guztiak haien bizitza baldintzatu du". Prozesu anarkoniko eta krudeltzat jo du Ankerkeriari Stop plataformak auzi hau, Usurbilgo gazte antolakundeak egin bezala. "Espainiako estatuko mekanismo errepresiboek eta Euskal Herriko hainbat eragileek ere oraindik jarrera oso errepresiboak" aplikatzen dituztela salatu dute, iraganekoak behar luketenak.

Auzi hau salatzen hainbat protesta egin dira azken urteotan, tartean Usurbilen bertan, baita egunotan ere herri eta eskualdeetan; tartean, iragan ostiralean Gasteizen eta Bilbon. Zenbait gazte atxilotu zituzten. Atxilotoketok eta "salaketa ekintzak egiten diren unean Ertzaintzaren jokabidea" deitoratu nahi izan du lerroon bidez Usurbilgo Ernaik.



Zumarte Musika Eskolan eman zituen lehen urratsak. Landarbaso abesbatzako kantarietako bat da gaur egun. NOAUA

"Atzerriko lehiaketetan oso ondo hartzen dute euskal musika"

OIHANA EIZAGIRRE LANDARBASO ABESBATZAKO KANTARIA

Uztailaren amaieran Balin izan zen Landarbaso abesbatzarekin batera. Asiako Choral Grand Prix sarietan nagusitu ziren. Abesbatzen zirkuituan oihartzun handia duen txapelketa da Balikoa.

Landarbaso abesbatzak Asiako Choral Grand Prixeko sari nagusia eskuratu du uda honetan. Erretereria-Oreteretako taldeak inoiz lortu duen garaipenik garrantzitsuena. Balin jokatu zen txapelketaz gain, International Bali Choir Festivalean ere lehiatu zen eta horretan ere beste hainbat garaikur poltsikoratu zituen. Oihana Eizagirre kantari usurbildarra 2009an hasi zen Landarbaso eta Baliko bidaiari buruzko hainbat xehetasun eskaini dizkigu.

Erretereria-Oreteretako Landarbaso abesbatzarekin batera, Asiako Grand Prix sari nagusia eskuratu duzu uda honetan.

Ezjakinak garenontzat, zer nolako garrantzia du balentria honek?

European bezala, Asian ere bada zirkuitu bat eta, zirkuitu horren baitan lehiaketa batzuk jokatzeko dira. Lehiaketa horietako irabazleek Gran Prixerako sailkatzen dira eta elkarren artean lehiatzen dute bertan. Gran Prix horren irabazlea hortaz, Asiako zirkuituko irabazlea da.

Tolosako (Gipuzkoa) abesbatza lehiaketa adibidez, Europako Gran Prixeko zirkuitu barruan dago. Baliko Choir Festival lehiaketa irabaztea hortaz, Tolosako lehiaketa irabaztearen parekoa litzateke.

Abesbatzen munduan, oihartzun handiko sariaketa da Balikoa, ezta?

Bai, hala da.

Asian maila handia dago. Lehiaketa estua izango zen.

Ez zen erraza izan. Maila bazez. Lehiaketa osoan zehar abesbatza asko aritu ziren baina, orohar, maila handia zegoen.

"ASIAKO CHORAL GRAND PRIX SARIAN MAILA HANDIA ZEGOEN"

Gran Prix batean, behin bakarrik kantatzen da ala saio bat baino gehiago eskaini behar izaten da?

2019an, Baliko lehiaketan parte hartu genuen, eta orduko hartan irabazi genuen Asiako Gran Prixerako txartela. Sei abesbatza aritu ginen eta denak entzuleen artean geunden. Era horretan, gai nontzeko taldeen emanaldiak entzuteko aukera izan genuen. Behin oholtzara igota, 20 minutuko kantaldia eskaini behar genuen.

Hori Gran Prixen. Baliko lehiaketan aldiz, ez genuen beste abesbatzak entzuteko aukerarik izan. Gure txanda iritsi zenean, 10 minutuko tartea izan genuen.

Sari askorekin itzuli zarete. Horrelako emaitzarik espero al zenuten ala ezustekoa izan al zen zuentzat?

Irabazteko xedearekin egin genituen prestaketa-lanak. Baina beti dago ez irabazteko aukera, noski. Asiako Grand Prix ez irabazita ere, Baliko lehiaketa ere jokoan zen. Beraz, bietan kantatzeko mentalizatuta geunden.

Uztailaren amaieran izan zineten Balin. Baina hasi, noiz hasi zineten Asiako biratxo hau prestatzen?

Urtarrilean hasi ginen uztailko programa lantzen. Partiturak irakurri, obrak muntatu... Gero, lehiaketetara joan aurretik, jendaurrean abesten saiatzen gara, oholtzara ohitu gaitzen. Beste urte batzuetan emanaldi gehiago atera izan dira. Aurtentzen ordea, emanaldien faltan, audizioak prestatu ditugu Erretereria-Oreteretan bertan. Inguruko jendea gonbidatu dugu, jendaurrean abestea ohitzen joateko. Lehiaketa hauetan, denbora tarte jakin bat izaten dugu kantatzeko, eta audizioak ondo etorri zitzaizkigun denbora tarte horien baitan kantatzen ikasteke.

Eta lehiaketa batean, zuri dago-kizun denbora tartea gaingiduzuz gero, zer gertatzen da?

Penalizazioak izan ohi dira.

Tokitan dago Bali. Maiz bidaia-tzen duzue atzerrira ala salbues-pen modukoa izan al da uda honetakoa?

Urtero lehiaketa batera aurkeztu ohi gara, dena den, normalean ez gara hain urrutira joaten. 2017an Japonian izan ginen eta 2019an Balin, baina normalean Europako Gran Prix zirkuituaren barruan aritzen gara. Arrezto (Italia), Debrecen (Hungaria), Maribor (Eslovenia), Tours (Frantzia), Varna (Bulgaria) eta Tolosako lehiaketetan. Horietan, ia denetan izan gabela esango nuke. Iaz Proventzan (Frantzia) izan ginen. Europako Gran Prix zirkuituan egon gabe ere, antzeko maila duten lehiaketetan aritu ohi gara.

Landarbaso hortaz, Europako puntako talde bat da.

Bai, une honetan bai.

Balik kutsu turistiko nabarmena du. Inguruak ezagutzeko astirik izan al duzue?

Bai baina nahi baino gutxiago. Aste osoa lehiaketan sartuta egon ginen. Behin haraino joanda, egun batzuk ere hartu genituen ingurua ezagutzeko. 2019an ere bertan izan ginenez, Javako irlara mugitu gara aurten.

Nondik datorkizu abesbatzan aritzeko joera?

Zumarte Musika Eskolan hasi nintzen. Imanol Elizasuk, orduko abesbatzako zuzendariak, Erreterria-Oreretako abesbatza ere zuzentzen zuen. Hainbat urtez, emanaldi batzuk elkarrekin egin genituen. Gero,

"URTERO NAZIOARTEKO LEHIAKETA BATEAN ARITU OHI GARA"

Erreterria-Oreretako Oinarri abesbatzan izan nintzen pare bat urtez. Bilbora ikastera joan nintzenez, dena utzi nuen. Garai horretan Usurbilgo jende bat ari zen Landarbaso abesten: Agurne Alkorta, Iñaki Zugasti, Eli nire ahizpa... Iñaki Tolaretxipi Landarbasoko zuzendaria jende bila zebilen eta nire berri eman zioten. Eta horrela hasi nintzen Landarbaso kantatzen. Une honetan, ni naiz taldeko usurbildar bakarra.

Urtean zehar, asko zaindu behar al duzue ahotsa?

Ahotsa zaindu behar da, bai. Batez ere kontzertuak ditugun egunetan. Balirako hegaldian adibidez, denak joan ginen zapia jarrita, ondo tapatuta, karameloak janez, eztarria goxatzen... Ze hegazkinetako aire egokitua arriskutsua izan daiteke. Baina gainontzean, dietarik eta horrelakorik ez dugu egiten.

Kanpora joaten zaretenean, euskarazko abestirik izaten al duzue erreperorioan?

Kanpora joaten garenean, euskarazko kantak eramaten saiatzen gara beti.

Zer nolako harrera izaten dute?

Hemendik kanpo oso ondo hartzen dute euskal musika. Euskal Herriko konpositore batzuk ezagunak dira atzerrian eta abesti batzuk guk baino hobeto ezagutzen dituzte. Josu Alberdi edo Javi Bustoren abestiak adibidez, oso ezagunak dira abesbatzen zirkuituan.

Euskal Herrian baino errekonozimendu handiagoa izango dute kanpoan.

Hala izango da seguraski.

"ZUMARTE MUSIKA ESKOLAKO ABESBATZAN HASI NINTZEN"



Oihana Eizagirre, Asiako lehiaketetan irabazitako sari guztiekin batera.



Landarbasoko kantariak, Asiako Choral Grand Prix irabazi berritan.



Astebetetz aritu ziren lehiari baina turismorako tarterik ere izan zuten.



Baliko txapelketa irabazi eta gero, Javako irlara joan ziren bisitan.



Aisialdiari lotutako ikasketak sustatzen ditu Udalak, dirulaguntza lerro baten bidez.

Aisialdiko eta euskarako udal dirulaguntzen behin betiko ebazpenak

10 eskaera aurkeztu zituzten aisialdiko dirulaguntza deialdian. Euskara ikasi zutenen artean, 50.

Usurbilgo Udalak iazko ikasturtean zehar aisialdiko begirale nahiz zuzendari gisa lan egiteko ikastaroren bat egin edota euskara ikasten aritu zirenei zuzenduriko behin betiko ebazpen bana kaleratu zuen irailaren 20ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Ekainaren 19tik uztailearen 7ra bitarte, dirulaguntzak eskatu zituztenei erantzuten dieten ebazpenak dira. Guztira, hamar eskaera aurkeztu zituzten aisialdiko udal dirulaguntzetarako eta eskakizunon artean 1.730 euro banatuko ditu Udalak. Euskara ikasi edo maila hobetzeko ikastaroren bat egin zutenen artean 50 eskabide aurkeztu zituzten udal dirulaguntza deialdirako. Kasu honetan, 24.473,35 euro banatuko ditu Udalak.

HABEren laguntza lerro berria

Ikasturte berri honetan ikastaroren bat egiten dutenek ere udal dirulaguntza jasotzeko aukera izango dute. Gogoan izan, Usurbilen euskara doan ikasteko aukera dago. Izan ere, matrikula kostuaren %100a bere gain hartzen du Udalak,

600 euroko mugarekin, besteak beste, Usurbilen erroldatua egon edota gutxienez, klaseen %80ko asistentzia egiaztatzen dutenen artean. Aisialdiko dirulaguntzen kasuan, matrikularen %50a jasoko dute dirulaguntza moduan, gehienez 250 euro.

Laguntza lerro hauei HABEk iragarritakoak daude. Etumeta AEK euskaltegitik ohartarazi dutenez, bada berrikuntzarik aurtengoan; 16-18 urte artekoentzako lerro berri bat iragarri dute. Eusko Jaurlearitzak azaldu duenez, "C1 komunikagarritasun maila hobetu ahal izango dute ikastaroak ia doakoak izango dituztelarik, horretarako azterketa-proba egiteko beharriangabe. DBH amaieran gazteek beraien euskarazko komunikazioaren ezagutza maila handitzea eta sendotzea da helburua goi-mailako prestakuntza profesionala edo unibertsitatekoa hasteko edo lan merkatuan euskarazko komunikazio maila egokiarekin sartzeko. Ikastaro hauek ia doakoak izango dira, ikasleek 20 euroko matrikula baino ez dute ordaindu beharko".

Ikastaroetan izena emateko epea, ixtear

Udalaren doako euskara ikastaroak

- Erretiratuentzat (urriaren 19tik ostegunero, 18:15-19:45 artean Artzabalen).
- Etorri berrientzat (urriaren 17tik asteartero, 18:15-19:45 artean Potxoenean).
- Haurzein nerabeentzat (urriko hirugarren astetik, Zubietan, Aginagan eta Kaxkoan). Informazio gehiago: 943 371 999 / euskara@usurbil.eus / Artzabal (erretiratuentzako ikastaroaren kasuan).

Etumeta AEK euskaltegia

Irailaren 28ra arte matrikulatu ahal da. Informazio gehiago: 607 609 379

Jabetze eskola

- "Autoestimua eta ahalduztzea" Pepa Bojoren eskutik (gazteleraz), urriaren 5etik abenduaren 14ra, ostegunero Potxoenean, 17:00-19:00 artean.

• "Biodantza" ikastaroa, urriaren 3tik abenduaren 12ra, asteartero, 15:30-17:00 artean Oiardon. Izen-ematea, irailaren 29ra arte: udaletxean edo 943 371 951 telefono zenbakian.

Aisialdiko hezitzaile ikastaroa

17 urtetik garaiko ikasleentzat, Batxilergoko 2. mailako ikasleentzat zuzendua egongo da. Saioak urriaren 20tik maiatzaren 14ra, ostiral edo larunbatero Udarregi ikastolan. Prezioa: 430 euro.

Informazio gehiagorako: zirimola.eus / 943 445 108 /

Buztinzulo

Keramika tailerra antolatu du urriaren 17tik maiatzaren 28ra. Saioak asteartero izango dira, 17:30-19:30 artean. Prezioa: 200 euro. Izena irailaren 30a baino lehen eman beharko da. Harremanetarako: buztinzulo@gmail.com

Ekintzaileek dirulaguntzak eskatzeko azken egunak

Bi udal dirulaguntza lerrootara eskabideak aurkezteko epea hilaren 30ean itxiko dute:

'Hasiz hasi' beka

Ekintzaileentzako Kabiene Elkartean lankidetzaz-esparrua erabiltzeko Hasiz Hazi bekaren oinarriak:

- Laguntzaren zenbatekoa: dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa 1.234,20 eurokoa izango da, beti ere ekintzaileak 12 hilabetetako erabilera izaten badu Kabienean.
- Epea: irailak 30.

Jarduera ekonomiko berri bat abiatzeko dirulaguntza

Hutsik dagoen merkataritza lokal batean jarduera ekonomiko berri bat abian ipini nahi

duten ekintzaileentzako dirulaguntzen oinarriak eta 2023ko deialdia.

- Laguntzaren zenbatekoa: ekimenak abiarazteko hasierako gastuei aurre egiteko gehienez 5.500 euro. Lokalaren alokairu edo erosketa gastuetarako, lehen urtean gehienez 400 euro hilean, bigarrean 300 euro gehienez jota.
- Lagunduko diren egitasmoak: egun eskaintzen ez diren zerbitzuekin lotutakoak edota ixtear izan edo itxi berriak izan diren jardueren jarraipena bermatzen dutenak lehene-tsiko dira.
- Epea: irailak 30.

Informazio gehiago:

Otsailaren 17ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala.

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

Alokairuan hartzeko oztopo arkitektonikorik gabeko etxebizitza txiki edo estudio baten bila gabilta. Adin nagusiko bikote bat gara. 627184674
Lanerako gela bat eskaintzen da, zerbitzuetarako primeran: fisioterapia, masajista, psikologia etab. egokitua. Kokapena eta sarbide ona. 2020an berritua. 670 410 273.

Mutil batentzako pisu bila nabil. 622 925 562.

SALGAI

Izar-etxe beheko etxea salgai. 85 metro koadro inguru eta txokoa ditu. Informazioa Elizalde inmobiliarian: 943353534.

MOTORRA

SALMENTA, GARAJEAK

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUAIKO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

Munalurra 4 zenbakian lokal bat daukagu alokatzeko. Telefono zenbakia: 652 765 583.

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Sukaldari laguntzailea behar dugu lanaldi osorako Kalezarko Matiairen zaintzadun etxebizitzaren auzuneko kafetegirako. 670 654 272.

Umeak zaintzeko eskolako garaian, goizez edo arratsalde. Usurbilgoa eta euskalduna naiz. 616 273 785.

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Datorren ikasturtean haurrak eskolatik jaso eta etxera ekartzeko pertsona baten bila gabilta. 12:00-14:00, astelehenetik ostiralera. Kotxea izatea eta euskara jakitea beharrezkoa izango da. 617792736

Laukote okindegian, astebukaeretan lanaldi erdiz aritzeko. 634 401 171
Aginaga sagardotegian, lanaldi osorako zerbitzaria behar da. Euskaraz jakitea beharrezkoa da. 943 366 710

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Manikura egiteko zerbitzua eskaintzen dut. Hartu zure hitzordua whatsapp bidez telefono zenbaki honetan: 611282203.

Ikasturtean zehar haurrak zaintzeko prest nagoen gazte usurbildar bat naiz. Umeekin esperientzia daukat. Ordu egian malgutasuna. 688805307

Soziosanitario titulua dut. Adinekoak zaintzeko prest, edozein txandatan. 611 72 79 74.

Orduka garbiketa-lanak egingo nituzke. Garbiketa-lanak egiten esperientzia daukat. Harremanetarako: 602 082 583.

BESTELAKOAK

Etxean egindako gozogintza enkarguz eskatu dezakezu @deliciascreativasdey / 624356763 (Deynis).

TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	943 368 770
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkartea Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiardo Kirolegia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Pobxoenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Kzguna	943 023 684	Gurutze Gorria	943 272 222
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Emergentziak	112
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-inkarria, arreta	016
Kalezar Egunezko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

ZORION AGURRAK



Zorionak amona Mertxe!

Irailaren 24an ospatu genuen zurekin 91. urtebetetzea. Maitakorra zara eta maite zaitugu.

GUARDIAKO FARMAZIAK

EGUNEZ

Osteguna, 28	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Ostirala, 29	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Larunbata, 30	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Igandea, 01	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Astelehena, 02	URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte / 943 36 65 67
Astearte, 03	GANDARIAS-URIBE: Iñigo Loloia 9. Lasarte / 943 01 95 21
Asteazkena, 04	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Osteguna, 05	DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Ostirala, 06	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Larunbata, 07	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Igandea, 08	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08

GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

AIZPURU ODRIÓZOLA, KARMELE: Latxunbe Berri, 11 Hernani 943 33 60 77

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

Urte askotarako!

Zorion itzazu senitartekoak eta lagunak:

Posta elektronikoa

Mezua bidali erredakzioa@noaua.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta ipini nahi duzun testua.

Bulegoa

Etor zaituz gure bulegora edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Oharra:

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion-agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTIRALA 29

USURBIL "Emakumeok mugimenduan"

Oinarrizko gaitasunak lantzeko entrenamendu funtzionala.

18:30ean Mikel Laboa plazan.

AGINAGA Jaiak

Txupinazoa, pregoia eta brindisa. Egitarau osoa, 12. orrialdean.

18:30ean Eliza Zaharrean.

USURBIL Sareren mobilizazioa

20:00etan Mikel Laboa plazan.

LARUNBATA 30

AGINAGA Jaiak

Oilasko biltzaileen eguna. Egitarau osoa, 12. orrialdean.

USURBIL Kantu jira

12:00etan Mikel Laboa plazan.

USURBIL "Usurbil Museo Irekia" bisita gidatua

Izen-ematea: 650usurbilbizi.eus.

12:00etan Sutegin.

IGANDEA 01

AGINAGA Jaiak

16:00 Mus Txapelketa Irekia Eliza Zaharrean. 17:00 "Pirata Garrapataren abenturak" Eskola Txikiaren aurrean. 19:00 Haragi egosi, txorizo eta sagardo banaketa, trikiritxarekin.



'Emakumeok Mugimenduan' aplikazioa ezagutaraziko dute ostiralean Usurbilen. Argazkian, Goizane Alvarez Foru Aldundiko Kirol zuzendari nagusia.

Emakumeen aktibotasuna sustatzeko aplikazio bat sortu dute

'Emakumeok Mugimenduan' app-a ezagutarazteko xedez, txita ibiltari bat ibiliko da datozen asteetan Gipuzkoan barrena. Ostiral honetan Mikel Laboa plazan izango da, arratsaldeko 18:30etik 20:00etara.

EHUko Hezkuntza eta Kirol Fakultateko ikerlariak egindako azterketa bat dago ekimen honen oinarrian. 8 eta 64 urte arteko emakumeen aisialdiko jarduera fisikoa eta kirol ohiturak neurtu zituzten eta emaitzen arabera, "3 emakumetik 1 ez da aktiboa, astean 120 minutu baino gutxiagoz egiten baitu kirola (Osasunaren Mundu Erakundearen gomendioaren azpitik). Gainera, inaktibotzat dute beren burua, eta hori sinesten dute", Foru Aldunditik aditzera eman zuten.

Ostiral arratsaldean, "entrenamendu funtzionala"

Errealitate honen aurrean jaio zen 'Emakumeok Mugimenduan' izeneko aplikazioa. Eguneroko jarraipena egin eta emakumeen aktibotasuna sustatzeko xedez. IOS zein Android sistema operatiboetan eskura daiteke eta doakoa da.

Aplikazioa ezagutarazi eta herritarrei hurbiltzeko asmoz, txita ibiltari bat ibiliko da Gipuzkoan. Ostiral honetan, Usurbila gerturatuko da. Aldunditik aditzera eman dute, "oinarrizko gaitasunak lantzeko entrenamendu funtzionala eskainiko du MOOV zentroko Egoa Alvaradok. Mikel Laboa plazan izango da, 18:30etik 20:00etara, eta ez da aurrez izenik eman behar".

Pilota

Irailak 28, osteguna

Aginagan, 19:00

Kadeteak 1. Maila:

(Alejo-Errasti)

Nagusiak 1. Maila:

(Santxo-Urruzola)

Nagusiak palaz bina

naka (Errasti-Salegi)

Irailak 29, ostirala

Usurbilen, 18:00

Kadeteak, 3. Maila

(Indakoetxea-Jauregi)

Eskubaloia

Irailak 30, larunbata

Oiaro kiroldegian

18:00 Kadete mutilak:

Usurbil K.E.-Bergara

Bilera Txokoalden

Udala Txokoaldeko auzotarrek biltzeko deialdia egin du. ETS-ren trenbidea bikoizteko proiektuari aurkeztutako alegazioen eta izandako azken berri eman dute urriaren 3ko bileran.

Urriak 3 asteartea

18:00 Txokoargin.

eskura
elikadura eta dietetika aholkularitza
DIABETESA, HIPERTENSIOA,
GIZENTASUNA, ELIKADURA
ETA KOLESTEROL ARAZOAK
688 843 696
Zubiarrenea 1, 1c Usurbil

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA
www.artzabaljatetxea.com 943 36 91 39

·EGUNEKO MENUA
·KARTA
·RAZIOAK
·HANBURGESAK
·BOKATAK

Instagram Facebook

Otar-Goxo
Elirikagaiak
Zubiarrenea 2, 943 36 55 81

BOOKTEGI JAIALDIA

urriak 28

POESIA-ITZULERA 11:00etan
(Zumarteko ganbaran)

GONBIDAPENA

Euskarazko literatura sustatzeko jaialdi honetan, euskal poema bat aukeratu eta beste batek aukeratutakoa irakurriaz osatuko dugun katean parte hartzeko gonbidapena da honakoa.

Eman izena Sutegi Liburutegian eta bidali zure poema ondorengo helbidera (izena emateko azken eguna urriak 19):



biblioteca@usurbil.eus

noaua

noaua.eus

Herriko berriak beti soinean

Albisteak, argazkiak, bideoak, agenda, zorion-agurrak, eguraldia, aldizkaria online...
Klik batean den-dena ikusgai zure eskuko telefonoan, tablet-ean edo ordenagailuan.

BULTZA, EGIN IRAULTZA!

